

23.korrika



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



'PAPEREZKO BIZITZAK' IPUIN-LEHIAKETA

ATE AUTOMATIKOAK

Mendi batean, neska beltz eta gaztea zuhaitz atzean ezkutatuta. Izerditan blai eta beldurtuta. Mugatik pasatu berri da eta bere bila dabilta. Mamu bihurtu nahi du.

Bere familiarengan pentsatzen hasten da eta malko bat ateratzen zaio. Hotsak zein ahotsak gero eta urrutiago entzuten ditu. Oraingoan, zortea du eta ez dute harrapatu. Azken muga geratzen zaio Euskal Herrira iristeko.

Azkenean, 2 urte bidaian egon eta gero, iritsi da. Bere nahiak bete ditu. Bera pozik eta harro dago. Ez zen erraza, baina jendeak dioen moduan, ezina ekinez egina.

Hurrengo egunetan, herri berri honetan kokatu behar du. Supermerkatu batera erosketak egitera joan da, baina sartzerakoan, konturatu da ate automatikoak ez direla irekitzen. Berrito saiatu da, baina berrito ez du arrakastarik izan. Sartu ahal izateko beste pertsona baten zain dagoen bitartean, konturatu da mamu bihurtu

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



dela. Ez dute ikusten. Ez zaio entzuten. Ezta ate automatikoek ere.

Ez da erraza mamuaren bizitza. Paperik gabeko gizakiak gure betiko arazoak gehi 11 gehiago ditu. Nola lortzen da lanpostu duina ez baduzu lan egiteko baimenik?

Lan kontratu balu, kontu korrontea ireki lezake. Paperak balitu, lana bila lezake. Hizkuntza ikasteko aukera izango balu, gizarteratu liteke. Udaletxera joan da mamua euskara ikastaroan izena ematera, denok euskara ikasteko eskubidea daukagu eta. Hitzordurik gabe, inork ez dio jaramonik egiten, ezta hitzik esaten ere. Ezina ekinez egina, baina nik esango nuke esaldi hori gizon zuri batek asmatu zuela.

Gure mamuak ez du asko eskatzen. Oinarrizko eskubide bat baino ez. Komunikatzeko eskubidea. Adierazteko eskubidea. Entzuna izatea. Iritzia ematea. Euskaraz bizi ahal izatea.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus